

auzo • auzo • auzo • auzo • auzo • auzo

herrera

Eguberriak tailerretan

Altzako kaleetan zehar eguberri jai ugari antolatu da. Haur jaia abenduaren 26tik-30era izango da Larratxoko ikastetxe publikoan, Harriako Roteta Ludoteka eta Kemetrontxo taldeen lokaletan eta baita "Cascon" Adiskideak taldearen lokalean ere.

Astearterako, hilak 26, Harrian eskaiola tailerra izango da, bien bitartean Cascon larru tailerra eta Larratxon aldizkari eta pintaketa tailerrak, eta olinpiadak izango dira. Asteazkenean, buztin tailerraren, sukaldaritza, mozorro eta musika tresnen tailerren txanda izango da. Gero auzoko kaleetan desfilea egingo da. Azkenik, osteguna 28rako komiki tailerra iragarri zaigu, eta kultur etxean izango den "Liburutegiko saguak" arratsaldeko 16.30etan izango dira.

13-18 urte bitarteko gazteei dagokienez, ostegunean 10.30etatik 13.30etara malabar tailerra izango da Altzako frontoian eta arratsaldez ping-pong txapelketa Gazte-Lekuan.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



Makina bat tailer antolatu da gabonetarako, batzuk 13 urtetik gorakoentzat eta besteak haur gazteagoei egokituak.

Euskaltegi berria Larratxon

Larratxo 43-45 ean kokatu berri den Azpil euskaltegiak, abenduaren 20an ireki zituen ofizialki bere ateak. Herrera pasealekutik Larratxora ikasle kopuru aldaketa nabaria jasan dute, eta bikoizketa honen ondorioz pozik zeuden bertako arduradunak. Dena den, informazio gehiago nahi izanez gero dei 393936 telefonora.

herrera

Rosa Maria Etxebeste, San Antonio auzoko Mexikana kapelan lan egiten duen lekaimeak Urrezko Ezteiak ospatu dituela eta, meza berezia eskaini zitzaion pasa den astean.

Rosa Maria, herrerratarra, 70 urteko lekaimea, gaur egun Mexikanetako

kapelan sukalde lanetan dabil.

Gaiztarro inguruan kokatuta dagoen jaiotza-aren inguruan, gabonetako haur jaia antolatu da, abenduaren 23rako.

Arratsaldeko 16.30etatik aurrera haur ekintzak izango dira, alegia suzi-

riak, jokuak, kirolak, txistulariak eta garrantzitsuenak, bertara hurbiltzen diren hurrei opariak banatuko zaizkie.

Arren, Gaiztarroko denda eta tabernetan kokatu diren elzteitsuetan dirua sartuz parte har dezazuela eskatzen zaizue guztiei.

Argazki estudioa

Mirakruz

ESKAINITZA BEREZIA,
1996ko urtarila otsaila
eta martxoko ezkontzetarako.

- ERREPORTAI OSOA, ezkongaien 40 argazki eta gonbidatuen 20ak... 60.000pezetatan
- Oparia: argazki album eder bat
- Ezkontzarako gonbidapenak eta xehetasunak baditugu

Mirakruz 19 (Gros) • Tfnoa.: 28 19 99

KOSKA ENARA, S.L.

Salmenta eta Konponketak



RENAULT

Zubiaurre pasealekua, 41
INTXAURRONGO • Tfnoa.: 28 35 11